

LEHIAKETAREN OINARRIAK, ATARRABIako UDAL KIROL ESKOLETAKO ELASTIKOETARAKO IRUDI-LOGOTIPOAREN DISEINUA HAUTATZEKO.

1. LEHIAKETAREN XEDEA

Atarrabiako Udal Kirol Eskoletako elastikoen logotipo-irudia izanen den logotipoa diseinatzea.

Lehiaketaren xedea logotipo-irudia diseinatzera mugatzen da, eta ez da inola ere haren garapenari buruzkoa.

2. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileek oinarri hauek ezagutzen dituztela eta erabat onartzen dituztela.

3. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, gaztea izan behar da, 12 eta 30 urte bitartekoa (2009 eta 1991urteen artean jaiotakoak, biak barne), eta Atarrabian, Ezkabarteko haranean edo Anueko haranean erroldatuta egon behar da.

Parte-hartzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke, eta horietan guztiek izaera hori izan beharko dute. Parte-hartzaile bakoitzak, bakarka edo taldeka, gehienez ere bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu. Hala ere, parte-hartzaileek nahi beste talde-partaidetzatan parte hartu ahal izango dute.

4. PROPOSAMENA

Diseinua jatorrizkoa eta argitaragabea izango da, eta ezin izango da beste deialdi batean aurkeztua, eta egilea izango da arau horietako bat ez betetzeak ekar ditzakeen ekintzen eta erantzukizunen erantzulea. Teknika librea izango da, kontuan hartuta irudi-logotipoak gehienez hiru kolore izan beharko dituela eta honako leloa izan beharko duela: "Mugitu, Kirol Egin. Muevete, haz Deporte". Halaber, inklusiboa, parekidea eta aurreko leloarekin lotutakoa izan beharko du. Logo honen helburua Udal Kirol Eskoletako elastikoetarako irudia izatea da.

5. DOKUMENTAZIOA

Eskaera bi gutun-azal itxiren barruan entregatuko da. Lehenengoan, A4 neurrikoa, "Kirol-eskoletako Logotipoa" hitzekin eta parte-hartzailearen izenordearekin soilik identifikatzen da, eta honako hauek jasoko ditu barruan:

- A) Logotipoaren A4 neurriko bertsioa koloretan
- B) Logotipoaren zuri-beltzeko bertsioa, A4 neurrikoa.
- C) Pendrive bat logotipoaren fitxategiarekin, JPG formatuan. Fitxategiaren izenak bat etorri behar du parte-hartzailearen izenordearekin.

Bigarren gutun-azal itxian egilearen edo egile-taldeko kide guztien datu pertsonalak agertuko dira (izen-abizenak, NANA eta posta-helbidea). Era berean, aurkeztutako irudiari eta haren esanahiari buruzko azalpen labur bat erantsiko da.

6. AURKEZTEKO EPEA

Diseinuak aurkezteko epea 2021ko apirilaren 19an hasi eta ekainaren 18an amaituko da.

Lehiakideek Atarrabiako Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan entregatu beharko dituzte lanak (Kale Nagusia 22, 08:30etatik 14:30etara).

7. EPAIMAHAIA

Proposamenak baloratzeko epaimahaia honako hauek osatuko dute: Iosu Irigoien Reclusa, Kirol Zerbitzuko arduraduna; Joseba Amigorena Manzanos, Gazteria Saileko arduraduna; Oscar Orella Peinado, Diseinatzailea; Iñigo Garces Jiménez, Serigrafo-diseinatzailea, eta Alkatea. Epaimahaikideek ezin izango dute lehiaketan parte hartu.

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Aurkeztutako proposamen guztien artean epaimahaiak aho batez aukeratuko du sariaren irabazlea. Epaimahaiakideen artean adostasunik lortzen ez bada, lehiaketa hutsik geratuko da. Epaimahaiaren erabakia Atarrabiako Udalaren web-orrian jakinaraziko da, eta, gainera, egokitzat jotzen dituen komunikabideen bidez zabalduko da. Sariak ekitaldi publiko batean emango dira, udalaren webgunean behar bezala iragarritako lekuan eta egunean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina eta ezetzazina izango da.

9. SARIAREN ZENBATEKOA

Gazteria Sailak eta Atarrabiako Udaleko Kirol Zerbitzuak 250 euroko saria emango dute, Bono moduan, Atarrabiako tokiko merkataritzan kontsumitzeko.

10. JABETZA INTELEKTUALA

Saritutako logotipoaren jabetza Atarrabiako Udaleko Kirol Zerbitzuaren esku geratuko da, modu eksklusiboan eta iraunkorrean. Zerbitzu honek askatasun osoa izango du logotipoa osorik edo zati batean erabiltzeko, edo, beharrezkotzat jotzen duen unean eta moduan aldatzeko.

11. ARGITALPENA

Saritutako lanari buruzko dokumentazioa Atarrabiako Udaleko Kirol Zerbitzuaren esku geratuko da, eta hark libre erabili ahal izango du. Era berean, aurkeztutako lanak argitaratzeko eta zabaltzeko eskubidea izango du, egilea edo egileak aipatuta, baina horrek ez du inolako eskubiderik sortuko. Udalak logotipo irabazlearen diseinua eta haren gaineko eskubideak inskribatu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen erregistro ofizialetan. Aurkeztutako dokumentazioa ez da itzuliko.